

**ESKOLA IRAUNKORREN DIPLOMAK EMATEKO EKITALDIA**  
**ACTO DE ENTREGA DIPLOMAS ESCUELAS SOSTENIBLES**

2023-06-06 Busturia 06-06-2023

*Lehendakariaren hitzaldia – Discurso del Lehendakari*

Sailburuok, herri agintari eta herri ordezkariok, ikasle, irakasle eta ikastetxetako ordezkariok, jaun-andreok, egun on!

Eskerrik asko sari-emate ekitaldi honetara gonbidatzeagatik eta bertan parte hartzeko aukera eskaintzeagatik.

Lehenik eta behin, zorionak bertaratu zareten ikastetxe guztiei! Handia da egin duzuen lana! Segi horrela! Beti aurrera!

Aurreko belaunaldien izenean barkamena eskatzen dizuet. Ez dugu gure planeta behar bezala zaindu. Badakigu jarrera horrek ondorioak izango dituela. Horietako batzuk ikusten eta pairatzen ari gara dagoeneko.

Belaunaldi bakoitzari dagokigu aurkitu dugun mundua baino hobea uzten saiatzea. Aurkitu dugun mundua edo planeta hobetzea, hain zuzen ere. Hori beti izan da horrela eta horrela izaten jarraituko du.

Gure munduan gizakiok uzten ari garen aztarna begi bistakoa da. Ez da bat-batekoa izan. Gure jardueren, bizimoduen eta praktiken ondorioak pixkanaka agertu dira. Abisatuta geunden, baina norabidea aldatzeko erabakiak hartzeko denbora gehiegi behar izan dugu. Euskadin, Europan eta baita mundu guztian ere.

Orain, autokritika egitea dagokigu eta, horrekin batera, ingurugiroa zaintzeko hartutako erabakiak zabaltzea eta indartzea.

Egoera honi buelta eman behar diogu. Hemen gauden guztion ardura da honi buelta ematea. Emango diogu. Horixe emango diogula!

Lasai gaude, ingurugiroaren aldeko kultura sustraitu egin delako gure artean. Lasai gaude, lanabesa ezin hobea dugulako, gure historian aldaketa sakonak eragin dituen erreminta, hau da: HEZKUNTZA.

Aldaketaren ardura ez da Hezkuntzarena bakarrik, noski, baina honen eraginkortasunean biziki sinesten dugu. Erakundeok urrats sendoak ematen jarraitu behar dugu. Eredugarriak izan behar dugu. Horretan gaude. Horretan hobetzen jarraitu behar dugu. Egunero.

Zuei egokituko zaizue gure lanari jarraipena ematea; eta badakizue zer? Egingo duzuela. Bide hau hobetuko duzue, inguruaren aldeko kulturarekin hazi eta hezi zaretelako.

La Educación es el arma más poderosa para cambiar el mundo. Tened esto muy presente. Cuanto más sepamos, cuanto más críticos seamos, cuanto más nos cuestionemos y tratemos de aprender y mejorar, seremos mucho más libres. Seremos mucho más capaces.

Una persona formada cuenta con más herramientas para afrontar los problemas del mañana. Este es el espíritu de este Programa: más formación y concienciación en favor de un bien común: la sostenibilidad de nuestro planeta, de nuestra vida y convivencia.

Hoy agradecemos y reconocemos vuestro compromiso y vuestra participación.

Vemos cómo trabajáis, la importancia que dais al cuidado de nuestro planeta y sentimos que avanzamos en la dirección correcta. Tenemos mucho que hacer, pero la sensibilidad y el compromiso crecen y esta realidad dará su fruto.

Habéis aprendido, sois realistas y queréis un mundo mejor en el que vivir. Transmitís lo aprendido, los hábitos saludables y sostenibles, a las personas que os rodean. Es un compromiso compartido.

Cuidáis el planeta, nuestro hogar del mañana, y exigís que el resto también lo haga. Sois activistas de vuestro propio futuro. Lo aplaudimos sinceramente. Tenéis las riendas de vuestro porvenir.

Aurrean dugun erroka ez da makala. Baina egingo duzue. Horixe egingo duzuela!

Zuek ere etorkizuneko belaunaldi mundu eta planeta hobe bat utziko diezue. Ez dugu inolako zalantzarik.

“Hezkuntza” eta “planetarekiko konpromisoa”. Etorkizun oparoa izateko ezinbesteko aldagaiak. Zuen alboan izango gaituzue. Zuen ereduak gure bidea argitzen digu.

Jarraitu dezagun bide hori elkarrekin jorratzen.

Zorionak guztioi eta batez ere eskerrik asko!